


puntuua

ALBERTO SANTANA,
HISTORIALARIA:

“EZIN NAIZ
EUSKAL HERRIAN
ZEHAR IBILI
IKUSTEN DUDANA
ULERTU BARIK”



“Euskal Herria interpretatzeko, ikusten dugunetik harago joan behar dugu, sakonago”

ALBERTO SANTANA HISTORIALARIA ETA ETNOGRAFOA

Telesforo Aranzadi Bergarako antropologoaren inguruko mahai-inguruan parte hartu du historialari bilbotarrak, UNEDen 40. urtemugako ekitaldien barnean. Azken urteetan ikus-entzunezkoetara saltoa ere eman du Santanak. Testua: **Josu Bilbao**. Argazkiak: **Julen Iriondo**.

Bilbon jaio zen Alberto Santana 1960an, eta Bartzelonan burutu zituen Historia ikasketak. 1989a ezker, Erdi Aroko Historiako irakasle da UNEDen. **Telesforo Aranzadiri buruzko mahai-inguruan parte hartu duzu Bergaran. Euskal kulturako ezezagunetako bat da Aranzadi?** Ezezaguna baino gehiago, ezkatatua izan dela uste dut. Ezkatatua eta ahaztua. Ezaguna da, guztiondako erreferentzia izan delako Telesforo Aranzadi, baina gaur egungo belaunaldiek ez dute behar beste baloratzen. Bere garaian ezaguna izan zen, baina urrunekoa zen, eta orain urrunekoa da eta ahaztua, gainera.


Zer azpimarratuko zenuke haren lanaz?

Euskaldunen deskribapena zientziatik aztertzen saiatu zen lehenengoa izan zen. Bera zientzia-gizona izan zen: Farmazian katedraduna, Natura Zientzietan katedraduna... Zientzian formazioa zuen gizona izan zen. Hala ere, horrek ez du esan gura arrakasta izan zuenik, baina saiakera egin zuen aurrena izan zen. Zientzia garai hartan heltzen zen puntura arte heldu zen, eta gaur egun bere teoriak indargabetu egin daitezke, baina egin zituen hainbat aurrerapen oso

garrantzitsuak izan ziren. Bideak ireki zituen, hain zuzen ere.

UNED-Bergarak 40 urte bete ditu. Ez da edozein urtebetetze, ezta?

Bergarako UNEDen egoitza aldarrikatu egin behar dugu. Nire ustez, EHUri bidea ireki ziona izan da, eta hori gogoratu beharreko zerbait da. Euskal unibertsitate publikoa existitzen ez zenean, euskal unibertsitate bat sortzen ibili ziren hainbat lagun; erlijiozkoa ez zena, gainera. Beraz, aurkitu zuten bide bakarra fondo propioekin hau sortzea izan zen. UNED lau siglak osatzen dute: *U*, unibertsitatea, ondo egokitzen zaio Bergarari, bertatik irteten direnak ondo prestatuta irteten direlako. *N*, nazionala, ez dakit ze naziori egokitzen zaion, baina nortzuek sortu zuten kontuan hartuta imajinatzen dut ze naziori egin zioten erreferentzia. *E* edukazioari dagokio, eta hezi eta irakatsi ez du bakarrik maila akademikoan egiten, baita maila pertsonalean ere. Eta *D* distantziari dagokio, eta, nire ustez, ez da bidezkoa, distantzia laburrekoak garelako. Beti ematen ditugu zuzeneko irakasgai asko jendearekin kontaktu zuzenean. Izan ere, Debagoiena gure saltsa da. Bizia eta odola ematen diguna. Tradizio luze bati jarraipena ematen ari gara: Oñatiko unibertsitatea, Bergarako Errege Mintegia... 40 urte bete dituzte siglek, baina 500 urte dira Debagoienean euskal unibertsitate bat dugula.



Nondik datorkizu zuri historia zaletasuna?

Kuriositatea da, azkenean. Ezin naiz Euskal Herrian, nire herrialdean, zehar ibili ikusten dudana ulertu barik. Autoko leihotik, mendian oinez noala, itsasoan igeri egiten nabilela... Zaila da, niretako, ezin interpretatzea, eta, Euskal Herria interpretatzeko, ikusten dugunetik harago joan behar dugu, sakon interpretatu behar dugu.

Euskal Herriko historia ikertzen urteak daramatzazu. Zein da zure arlo kuttuna?

Nire espezialitatea, ikertzaile moduan, Euskal Herriko baserri mundua da. Baserritarren mundua eta baserria bera. Gai honen inguruan elkarbanatzeko eta eztabaidatzeko jende gehiago egotea gustatuko litzaidake, baina bakarrik samar nagoela esan daiteke. Izan ere, honi buruz gehien dakiena naiz. Gehiago dakien norbait egongo balitz, onartu egingo nuke, berarekin egunero hitz egitea gustatuko litzaidake eta. Azkenean, baserria eta euskara dira euskal kulturaren bi zutabeak. Euskara ikasi dut, eta baserriari dagokionez ezagutza sortzailea naiz.

Beraz, euskal baserriarekin maiteminduta zaude?

Bai, noski. Oso sakon, gainera. Gutxi gorabehera, 21.000 euskal baserri bisitatu ditut, eta gai honen inguruan nik beste edo gehiago jakin nahi lukeenak nik lanean daramatzadan hamarkadak eman beharko litzuzke. Astero bisitatzan dut baserriaren bat gutxienez. Eta horrela ibili naiz azken 34 urteetan.

Hainbat lan kaleratu dituzu euskal baserriari buruz, tartean Debagoieneko baserriaren inguruan...

Bai, eta historian badago garai bat, Debagoiena euskal baserriaren erdigune bilakatu zena. Euskal lurraldeen artean, sortze gaitasun handiena zuena izan zelako, eta Euskal Herrian baserriak izan duen kalitate kuota handiena ere izan zuelako, gainera. 1680 ingurutik 1750 ingurura, baserri munduari dagokionez ezagutu dugun onena eman zuten baserritarren bi edo hiru belaunaldi izan ziren. Ez bakarrik Gipuzkoan edota Euskal Herrian, baizik eta baserritarren arkitekturari dagokionez onena mundu mailan. Hori horrela izan dela azpimarratu dezakegu. Baserri ederrak dira, eta orduan ez zeuden munduko edozein baserritarren irismenean.

Azkenaldian, ikus-entzunezkora eman duzu saltoa Baskoniako historia bat edota agirre Lehendakariari buruzko lanekin. Eroso zaude formatu honetan?

Niretako, berria da. Ikertzailea naiz, eta lotsatia, gainera, eta giro akademikoan hobeto ikusten dut nire burua. Hala ere, ondo kontatzen dudala esaten didate, eta jada sinesten hasia naiz; kar, kar, kar. Nire ustez, ona da irismen zabala duten hedabide publikoek ahots sendoak, akademikoak, sakontasuna dutenak, eramatea pantailara. Euskal Herriaz maiteminduta jende asko dago, eta ni horietako bat naiz. Baina batzuetan, iritziak nahastu egiten dira, eta balio bera dutela dirudi. Pasio handiarekin eta ezagutza

gutzirekin hitz egiten dutenen iritziak ezagutza sortzen dutenekin nahastu dira. Ez dugu pasio itsuetan jauzi behar. Nik bi munduen artean nagoela esaten dut, kontatzea eta irakastea gustatzen zaidalako. Azkenean, hezkuntza mundutik nator, 27 urte daramatzat UNEDen, eta munduan zehar honen inguruko hainbat irakasgai eman ditut. Beraz, kontatzea gustuko dut, eta nire pasioari eusten saiatzen naiz.

Historia ikasteko modu edo bide ona da telebista?

Nire ustez, izan beharko litzateke. Telebista publiko baten obligazioa izan beharko litzateke. Herritar guztiok zergekin ordaintzen dugun telebista batek gutaz zerbait irakatsi behar digu. Pedagogikoagoa izan behar du. Ez da bakarrik entretenimendua izan behar, nahiz eta telebistaren ardatzetako bat entretenitzea izan. Hala ere, entretenimenduarena trikimailu merkea da, erraza, eta, azkenean, jendearen adimena narkotizatzen du. ETBk, baina baita tokiko telebistek ere, ezin dute lehiatu ea zeinek erakusten dituen ipurdi edo pertsonen errai gehiago. Gu nortzuk garen hobeto ulertzen laguntzeko lehiatu behar dute. Herri mailatik hasita, maila unibertsal batera heldu arte. Publizitate gehiago edota audientzia handiagoa lortzeak ez nau interesatzen.

Istoriok, mitoak, ipuinak, historia bera baino gehiago gustatzen zaizkigula diozu...

Bai, baina hori ez da txarra. Normala da. *Legenda* hitzaren etimologiak berak dio irakurrita edo kontatuta izateko idatzi dena dela legenda bat. Legendak, mito historikoak, oso gertukoak dira, maitekorak, baina ez digute azalpenik ematen, ez digute gu ulertzen uzten. Gure herriak, gure etxeak, gure familiak, munduarekin dugun erlazioa nolakoak diren interpretatzeko ez dute balio. Horregatik, historiak publikoarengandik konpromiso handiagoa eskatzen du. Apustu handiagoa. Eta ni telebistan hori egiten saiatzen naiz. Maila apur bat gehiago igotzen, eta historia eraikitzen lagundu diguten kontraesanak eta arazoak bilatzen saiatzen naiz.

Kritika ugari jaso zenituen euskalduntze berantiarren hipotesia azaltzeagatik Baskoniako historia bat saioan. Nola daramatzazu kritikak?

Min handiarekin. Minduta nago kritikak direla eta. Hipotesi baten inguruan berba egiten duen atal bat dela-eta heldu zaizkit kritikak. Garai baten kontuan hartu zen, eta gaur egun berritu egin den hipotesi bat da, eta guk bakarrik azaldu dugu gaur egungo bertsioa. Ez dugu zerikusirik hipotesi horren bertsio zaharrarekin, argi eta garbi, eta kritikak gaia ezagutzen ez duten pertsonengandik heldu dira. Gaiaren inguruan pasio handia dute, baina hau ez da euskara gehiago nork maite duen lehiaketa bat. Nik inork baino gehiago maite dut euskara. Hau ez da ea abertzaleagoa nor den lasterketa bat. Ni naiz abertzaleena. Honek eztabaida zientifikoa izan



“TELESFORO ARANZADI EUSKAL KULTURAN ESKUTATUA ETA AHAZTUA IZAN DA”

“GUTXI GORABEHERA, 21.000 BASERRI BISITATU DITUT 34 URTEAN”

“MINDUTA NAGO KRITIKAK DIRELA-ETA; GAINERA, GEHIENAK LAGUNAK DIRA”

Felix Leturia, Alberto Santana eta Mikel Agirre, Telesforo Aranzadiri buruzko mahai-inguruan.

21. orrialdean, Alberto Santana, UNEDeko Bergarako egoitzan.

beharko luke, eta ez blogetan, webguneetan eta hedabide batzuetara bidalitako gutun bidezkoa. Gainera, azaldu diren gehienak lagunak dira. Lagun onak dira edo izan dira, eta intelektual moduan gehienek huts egin didate. Nik honi buruz ere gutxi dakit, eta guztiok baino gehiago landu dut. Gauza hauetaz hitz egiteko espezialistengana jo dut. Eta espezialistek eztabaidatzen dute. Besteek iritzia ematen dute soilik. Iritzia ematea askea da, baina guztiok ez dute kalitate eta garrantzia bera. Bihotzarekin baina bururik gabe hitz egin dute askok. Oso minduta nago, eta ez nuke autozentsuran erori nahi hemendik aurrera. Hori da nire beldurretako bat. Izan ere, ETBri atal hori zentsuratzeko eskatu diote. Inongo kalterik egiten ez duten iritzi zientifikoaren zentsura eskatzea, hain zuzen ere. Gainera, eskakizun hori sinatu duten hainbat miresten ditut. UNED Bergarako zuzendari ohi Juanxto Madariaga, Patxi Zabaleta, Juan Martin Elexpuru, Gerardo Elortza, Gontzal Mendibil... Min handia eman dit izenak zerrenda horretan ikusteak.

Origen saioa estreinatu zenuten pasa den astean...

Oso esperientzia polita izan da. Gehienak diasporako pertsonaia dira, eta, euskal abizenak izan arren, inoiz ez dira Euskal Herrian izan eta ez dute kontakturik izan bertako senideekin. Gainera, ekarri nahiko nukeen jende asko ekartzeko dago oraindik. Isabel Allende Llona ekarri nahiko nuke. Allende, Gordexolako abizena, eta Llona Mungiakoa; beraz, alde guztietatik da euskalduna. Alejandro Gonzalez Iñarritu zuzendari mexikarra ere ekarri nahiko nuke. Okendon dagoen eta Iñarritu deitzen den baserria erori egin da, eta toki hori desagertu aurretik berak bere jatorria non dagoen ikustea nahiko nuke. Emozioz betetako saioa da beraz. Ernesto *Che* Gebararen anaia azaldu zen aurreneko saioan eta euren jatorri bat Angiozarren dago, adibidez. Beraz, Debagoienekoak ere ziren, eta Basalgoko Amutxategi bat ere azalduko da. Gehiago joango dira agertzen, askok zutelako jatorria Debagoienean. ■■■